

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko maiatzaren 30ean hartutako erabakiaren laburpena; bertan onartzen baitira eskola-ingurunean antolatutako hezkuntza-jarduerak garatzeko dirulaguntzetarako deialdia eta deialdiaren oinarriak, 2025-2026 ikasturtea

BDNS(Identif.): 841490.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/841490>).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalan kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

Deialdi honetan parte hartu dezakete eta laguntzen onuradun izan daitezke honako erakunde hauek: Ikasleen Gurasoen Elkartek (IGE), haur hezkuntzako bigarren zikloko eta derrigorrezko hezkuntzako mailak dituzten Vitoria-Gasteizko ikastetxeetakoak; haur hezkuntzako bigarren zikloko eta derrigorrezko hezkuntzako mailak dituzten Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako irakas-kuntza-kooperatibak, baldin eta guraso-elkarterik ez badute eta horien berezko funtzioak beren gain hartzen badituzte; eta Vitoria-Gasteizko Helduen Hezkuntzako (HHI) ikastetxe publikoetako ikasleen elkartek. Gurasoen Elkartek eta irakaskuntza-kooperatibak horiek kide diren federazioak ordezkatu ahal izango ditu, baldin eta ordezkaritza bi alderdiek sinatuta ematen bada.

Bigarrena. Helburua

Dirulaguntzen deialdiaren xedea da 2025-2026 ikasturtean eskola-ingurunean antolatutako hezkuntza-jarduerak egiten laguntzea eta jarduera horien hartzaile diren erakundeek eskola-elkartean esku hartu dezaten bultzatzea, hori guztia ikasleen prestakuntza integralerako eta eskola-arrakastarako faktore nabarmena den aldetik.

Hirugarrena. Oinarriak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko maiatzaren 30eko erabakiaren bitartez onetsiak; ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 200.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea oinarri hauen deialdiari dagokion laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean irekiko da, eta 2025eko irailaren 30era arte egongo da irekita (egun hori barne). Eskabideak epez kanpo aurkezteak dirulaguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 30a

Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkaria
SONIA DÍAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA